



MIKRO - IPUIN
LEHIAKETA
2018 - 2019



Euskokultur Fundazioak eta Pamiela Argitaletxeak antolatutarik:

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua.

Ipuin bakoitzak gehienez 100 hitz izanen ditu.

Sariak

Pamiela Argitaletxearen liburu sorta.

Irabazlearen ikastetxean

Sustrai Colinaren bisita eta topaketa.





Mikro-ípuín lehiaketa



Irakurle hori, mikro-liburu honetan hogeita bost testu biltzen dira. Horietatik hogeita lau sarrituak izan dira **Euskokultur** eta **Pamiela** etxeak antolatutako hama-bigarren **Mikro-ípuín** lehiaketan. Horiekín batera **Sustrai** **Colinaren** mikro-ípuín bat ere aurkituko duzu. **Guztiak zuretzat opari.**

Mikro-ipuina

*Fontellas-Tutera, Mutiloa,
Donamartiri
2018*



Azala:

MAITE MUTUBERRIA

Gure eskerrik beroenak epaimahaikide lanetan
aritu diren lagunei:

JON ABRIL, INES CASTIELLA, AINGERU EPALTZA,
INMA ERREA, IZASKUN ETXEBERRIA, FERTXU IZQUIERDO

Laguntzailea:



© Euskokultur Fundazioa, 2019
(www.euskokultur.eus)

© Pamiela argitalpen honengatik
Diseinua eta fotokonposizioa:

Pamiela. Ezkabarte industrialdea

K kalea, 31. 31194 Arre (Nafarroa)

Tel.: 948 32 65 35

pamiela@pamiela.com

www.pamiela.com

L.G.: Na-1362/2019

Nafarroan Rodona Industria Gráficak moldatu eta egina
Iruñea

Printed in Navarre

Mikro-ipuinak



*Fontellas-Tutera, Mutiloa,
Donamartiri
2018*

«Mikro-ipuin lehiaketa 2018»

Epaimahaiaren akta

Lehen-lehenik, eman diezaiegun ongietorria epaimahai hau osatzera etorri diren bi lagunei, hots, **Ines Castiella** eta **Izaskun Etxeberria**. Esku gehiagoren artean lanak arinago izaten baitira, esker mila gurekin aritzeagatik (**Aingeru Epaltza**, **Inma Errea**, **Fertxu Izquierdo** eta **Jon Abril**).

Mikro-ipuina Lehiaketaren aurtengo edizioan aurrekoan baino ale gehiago jaso dugu. Pozgarria oso, nahiz eta horrek lanak handitzen dituen. Izan ere, alor batzuetan, D eredukoetan, hain zuzen, asko ugalduta dira mikro-ipuina, eta besteetan, aldiz, gutxiago izan dira.

Jakin badakigu hainbat ikastetxetan beren programazioan sartu dutela mikro-ipuina idazteko aukera eta urtez urte horren fruitua jasotzen dugula. Gainerakoetan lan egiteko beste molde batzuk ere badarabiltzateela uste dugu, baina horri guztiari esker iritsi gara aurten 1635 ipuin izatera eskuartean. Zorionak guri, idazle pila izateagatik eskola-ikastoletan.

Idazle, ezen kasu askotan serio hartzen baitute ikasleek ipuina idazteko lana. Ez beti, egia esatera, baina askok eta askok erakusten dute gauza eder eta sakonak esateko gogo, bai eta abildadea ere. Gero eta nabarmenagoa da egungo gaiak erabiltzeko ahalmena, gazteek dakiten modu zuzen eta soberakinik gabe. Badira, noski, idazmolde ludikoan idatzitakoak, eite tradizionalagoak. . . bizi diren ingurunea, adina, gogoaren arabera. Orohar, ordea, kalitatea gora

joan da aurten, epaimahai honen ustetan. Baliabide linguistikoak eskas direnetan ere, zuku atera diote proposamenari eta ale politak sortu, A ereduan batez ere, non egindako ahaleginak agerikoak diren.

Ohi den gisan, bestalde, ageri dira Iparraldekoen goxotasuna eta Hegoaldekoen «*punk-tasuna*». Batzuek herri giroko bizimodua dute eta besteek urbanoagoa... Ipuinak zer izan behar duen ere, kontzeptua, desberdina dela ikus daiteke hainbatetan.

Ipuinotan, azkenik, ikus dezakegu nola sarritan telebista edo internet bilakatzen den gaien iturri, maiz mikro-ipuinetan halako erreferenteak agertzen baitira, gazteek zer ikusten eta irakurtzen duten erakusgarri.

Hautaturiko ipuinak sarien merezimendua dutenak direla uste dugu, baina ez pentsa ez zegoenik beste asko maila edo kalitate bereko. Hautatu egin behar, ordea, eta aurten honakoak dira kategorია guztietako irabazleak:

D EREDUAN, Lehen Hezkuntzako kategorian, ENEKO ETXEBERRIA OSUA saritu dugu, *Tximeletaren maitemintzea* ipuinagatik. Goraipatzekoa da erabili duen irudia, koloretsua eta bizia. Erritmoa du, progresibitatea, ia musikaltasuna ere, bere laburrean.

Sail horretan Ohorezko aipamena merezi izan dutenak honakoak:

MIKEL MAIZA LESAKAren *Supersagua* ipuina, gaurkotasunezko gaiaren kontakizuna ongi aukeraturiko ingurunean kokatu baitu. Hizkuntzaren zuzentasuna ere nabarmena; **IMANOL VAYÁ CAMPOS**en *Aulki baten bizitza*, irudi arrunt batetik abiatuta, jubilatuta nahiaren metafora umoretsua egin du, toki berean egotearen asperra; eta

AIMAR ARANDIA ELIZONDOren *Arantzako istorioa (egiazko istorioa)*, ahozko istorioa ongi ekarri du lehenetik egungora, zuzen eta graziaz.

D EREDUAN, **Bigarren Hezkuntzako kategorian**, **IRANTZU ZOZAIA MORRÁS** izan da saritua, *Pintza gorriak* lanagatik. Kontakizun arin bat, ongi eramana, zine giroan sartzen gaituena. Hor sartuta, zinematografikoki biratu egiten da istorioa.

Sail horretako Ohorezko Aipamenak jarraian datozenak:

AYAX REDÍN VEGAren *Itxurak*, non izenburuak berak esaldi bakarrean biltzen duen kritika iragartzen duen. Gaur egungo gaitza ezinezkoaz adierazia; **UNAX SÁNCHEZ ULIBARRENA**ren *Txuletak*, idazkera kriptikoa, tantaka bezala erortzen diren lau esaldietan dena kontaktzen du, umore eta guzti; eta **JAGOBA ARANBARRI RÍA**ren **3. kontsulta**, ongi eraikitako kontakizun laburra, bukaerak ematen dio indarra eta ekartzen du pentsarazteko gaia, egunerokoan gertagarri den uste okerren kritika.

A EREDUAN, **Lehen Hezkuntzako kategorian**, **AMAIA IZCO TORMO** izan da saria jaso duena, *Arratoi bat izoztua* ipuinagatik. Istorioa egoki kontatua da, narrazio zuzena eta ongi idatzia, hizkuntza adierazkorra. Bukaeran ustekabe xumea, erritmoari eutsiz.

Sail honetan Ohorezko Aipamena merezi dute ondoko hauek:

IKER RUIZ MORENOren *Nire astelehena*, umore eta ironia printza bat, hitz soltez ongi osatua, oso baliabide gutxirekin emaitza ona lortuz; **PÍA LATRÓNICO BALBUENA**ren *Neska eta ipuina*, ideiak kateatuz eratu du igarkizun moduko ipuina. Jolas antzekoa, irekia uz-

ten du. Zuzen idatzia da; eta **MARINA GURPEGUI LAPUERTA**ren *Liburu magikoa*, literarioki landu eta borobildua, amaieran irakasgaia ematen du, orainera iritsiz.

A EREDUAN, Bigarren Hezkuntzako kategorian, **IRENE ALEXANDRA MALES PINTO** izan da irabazlea, *Aitatxi ez dago* lanagatik. Iradokorra, sofistikatua. Ongi irudikatzen du, ia poetikoki, erreala izan daitekeena, esperientzia izana edo. Sinpletasunaz tristezia adierazten jakin du. Atzean, esan gabe, desagertpena, heriotza.

Ohorezko Aipamenak hurrengoak ditugu:

MARTA EZPELETA BARRICARTEren *Ama?*, urte sasoiaren progresioa aitzaki polita halabeharra adierazteko. Dramatikotasuna du, eta gainerakoa asmatu behar da; **FRANCISCO GUTIÉRREZ CALDERÓN**en *Aitzakiarik zaharrena*, esaldi bakarrean umorea eta ironia adierazita, izenburutik konfesio argia egin du, baina amaiera biribila gainera; eta **NEREA MOLINERO SOSA**ren *Ilargira malgukian*, eleberri tankeran idatzitakoa, deskribapena, izenak aukeratu, balio literarioa badu, ongi eraikia.

Iparraldeko ikasleen arteko sariketan, **Lehen Mailako kategorian** saritutakoa hauxe da, **JOHANE OIHENART-ETXART**, *Mattin biperjalea* izeneko lanaz. Herri ipuinaren kutsua du argiki, adierazkorrer da eta freskotasuna dario. Protagonistaren tematia ongi islatua du izena bost aldiz errepikatuta, gainera puntuaziorik ez darabilelarik.

Ohorezko Aipamena merezi izan dute honakoek:

GORKA BOUIXen *Xakurra eta gizonaren txixtea* ipuina, edo txistea, zehatz emandako istorio laburra, freskotasunez umore bila

egindakoa; **UXUE MONTERO**ren *Kontzertu sorpresa*, giro modernoago bateko elkarrizketa, ongi antolatua, zuzen idatzia; eta **GEXAN AROTÇARENA**ren *Haurra lurretik sortua*, ipuin fantastikoekin lotzen dena, baina gai pertsonal bati atxekirik, eta lurrari erreferentzia eginik.

Iparraldeko ikasleen Bigarren Mailako kategorian honakoa da saria lortu duena, hots, **ELAIA HOUGUENAGUE**, *Oihanaren ix-toria* lanaren egilea. Kontakizun moldea tradizionala bada ere, hartu duen gaiaz estereotipoak hankaz gora jarri ditu, autoestimu edo norberaren hautuak irmoki mantentzearen alde. Eta soberako diskurtsorik eman gabe, gainera.

Ohorezko aipamena izan dutenak jarraian:

MAIALEN IRIGOYENen *Ardiaren kolorea* izenekoa, itxura tradizionala, erritmo onekoa, konparazio batzuen bidez elementu klasikoak baliatuz autoestimuaren aldeko aldarria; **KENZO DUFOUR**en *Pobreen «La casa de papel»* ipuina, telesail batetik abiatu interpretazio berritzailea. Ondoan, krisia, nahigabea, zoritxarra . . . kontakizun ongi egina; eta azkenik **ANTONIN HALZUET**en *Gerlan* lana, txiste moduko hizketa bizia, adierazkortasun handikoa, eta umore beltz puntua.

Epaimahaikideok zuen ipuinokin gozatu dugu; datorren urtean ere halaxe izatea espero dugu.

Epaimahaiko kideak:

Jon Abril, Ines Castiella, Aingeru Epaltza, Inma Errea,
Izaskun Etxeberria, Fertxu Izquierdo.

Mikro-ipu in lehiaketa 2018



Sustrai Colina

ENEKO ETXEBERRIA OSUA

MIKEL MAIZA LESAKA • IMANOL VAYÁ CAMPOS • AIMAR ARANDIA ELIZONDO

IRANTZU ZOZAIA MORRAS

AYAX REDÍN VEGA • UNAX SÁNCHEZ ULIBARRENA • JAGOBA ARANBARRI RÍA

AMAIA IZCO TORMO

IKER RUIZ MORENO • PÍA LATRÓNICO BALBUENA • MARINA GURPEGUI LAPUERTA

IRENE ALEXANDRA MALES PINTO

MARTA EZPELETA BARRICARTE • FRANCISCO GUTIÉRREZ CALDERÓN

NEREA MOLINERO SOSA

JOHANE OIHENART-ETXART

GORKA BOUIX • UXUE MONTERO • GEXAN AROTÇARENA

EIAlA HOUGUENAGUE

MAIALEN IRIGOYEN • KENZO DUFOURD • ANTONIN HALZUET



Luze etzanda

SUSTRAI COLINA



Luze etzanda, zapala da mundua. Zergatik esan ote diet ikasleei egunkariak gezurrez josituta daudela? Egia gainbaloratuta dago. Ez da nork bere gezurrak sinetsi besterik.

Luze etzanda, biharko egitekoak labur zerrendatu ditut: alaba zaharrena futbolera eramanean, gazteenari aspertzearen onurak azaldu, tomateak landatu, itsuek koloretan amesten ote duten igarri, afaltzeko pizza erosi –asteazkena da– eta, eguraldi-iragarpena betetzen bada, goizean izarak garbitu gauzez berrerabiltzeko gisan.

Luze etzanda, luzeagoa da mundua. Ezin dut begirik bildu. Atzo hil nintzela dio gaurko egunkariak; bihar dela hileta. Ez dakit joaterik izango dudanez. Tomateak landatzeke eta izarak garbitzeke dauzkat oraindik.

D Eredua Lehen Hezkuntza



Eneko Etxeberria Osua
Mikel Maiza Lesaka
Imanol Vayá Campos
Aimar Arandia Elizondo

Tximeletaren maitemintzea

Urrundik ikusi zuen. Eder eta koloretsu, hego haundi, begi zabal.

Ziztu bizian berarengana joatea erabaki zuen.

Aho zabalik berarengana joan zen muxua emateko prest.

Eta eman ere eman zion.

Ozen, zaratatsu, indarrez, ispiluari muturrez.

ENEKO ETXEBERRIA OSUA

Ricardo Baroja I.P. (Bera). 6. maila

LHko LEHEN SARIA

Supersagua

Bata zuriz jantzitako emakume bat sartu zen laborategian. Genetikoki eraldatutako zaldia sortu zuen ingeniaritza teknikak erabiliz. Elefantearen geneak zaldiaren DNAn sartu zituen eta haren indarra zuen.

Ustekabean, zaldia ihes egin zuen. Bere indarrarekin apurtu zituen kaiola eta paretak. Ondoren, hiri barnean, autoak, etxeak... apurtu zituen. *Txikagoko* biztanleak oso kezaturik zeuden. Momentuan zookoek lehoi bat askatzea erabaki zuten, baina lehoia kontrolatuz. Zaldia lehoiari eraso egin eta oso urrun bota zuen.

Azkenean, sagu bat atera zen estoldatik, zaldia izutu eta geldirik gelditu zen. Genetikak ez dio soilik indarra eman, saguekiko beldurrak ere bai.

MIKEL MAIZA LESAKA

San Fermin ikastola (Zizur Txikia). 6. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Aulki baten bizitza

Ikastolako aulki berde normal bat naiz. Ikastola honetan ia egunero pisu asko jasan behar izaten dut eta askotan ipurdi usaintsuak egoten dira nire gainean. Noizbait ganbarara igotzea espero dut.

IMANOL VAYÁ CAMPOS

Argia ikastola (Tutera). 6. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Arantzako istorioa (egiazko istorioa)

Baziren behin bi anai Lorvido izeneko etxe batean bizi zirenak. Egun hartan bi anaietako bat errekarra ura hartzera joan zen. Euria egiten zuenez etxerat busti-bustia bueltatu zen. Etxera ailegatu zenean anaiari erran zion:

—Hementxen duk ura!!!!!!!

—Eskerrik asko eta orain bustia hagoenez huaie eta ekartzak bertze iorrada bat.

Orduan bertze anaiak hartu zuen balde bat urez betia eta burutik beiti bota zion erranez:

—Orain hi ere bustia hago eta seitzak hieune!!!!!!!

AIMAR ARANDIA ELIZONDO

Ricardo Baroja I.P. (Bera). 6. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

D Eredua Bigarren Hezkuntza



IRANTZU **Z**OZAIA **M**MORRÁS
AYAX **R**EDÍN **V**EGA
UNAX **S**ÁNCHEZ **U**LIBARRENA
JAGOBA **A**ARANBARRI **R**ÍA

Pintza gorriak

Halako batean, atzera begiratu nuen eta zine-aretoke azkeneko eserlekuetan karramarroak zeuden, adi-adi filma noiz hasiko zain. Nik ezin sinetsirik hor zeuden eta pelikula hasteko soinu arraroak egiten eta mugitzen hasi ziren. Pelikula asko gustatzen zitzaizela ematen zuen, begirada distiratsua zutelako pantailan.

Ez dakit zergatik, baina ez ninduen harritzen karramarroak egoteak. Beren pintza gorriekin erraztasunez hartzen zituzten palomitak. Bat-batean norbaitek hitz egin zidan, ordea, ez zegoen inor gehiago ni eta karramarroak izan ezik. Atzera begiratu nuen berriro atximurka nabaritu nuelako nire lepoan. Inor ez, alabaina ezker besoa aurreratu nuenean nire esku pintzadun handiago eta gorriago bat ezin nuen poltsikoan sartu.

IRANTZU ZOZAIA MORRÁS
Jaso ikastola (Iruñea). DBH 2
BHko LEHEN SARIA

Itxurak

Munduaren bukaera iritsi zenean, denak argazkiak Instagramera igotzen saiatu ziren.

AYAX REDÍN VEGA

Alaitz BHI. DBH 4

BHko OHOREZKO AIPAMENA

Txuletak

Azterketa batean zaude, urduri. Irakasleak begiratzen dizu. Zure txuleta hartu eta, ixil-ixilik, koadernoan zerbait idazten du. «Agian, gatza falta zaio», madarikatu duzu zure burua.

UNAX SÁNCHEZ ULIBARRENA
Alaitz BHI. DBH 4
BHko OHOREZKO AIPAMENA

3. kontsulta

Egun euritsu bat zen eta egunero bezala, Ali futbol zelaira joan zen. Mikel eta bere taldea han zeuden, futboleant jokatzen. Alik futboleant ea jokatu ahal zuen galdetu zuen eta Mikelek honela erantzun zion, «Zu, moro bat gurekin jokatzen, ezta pentsatu ere! Eskuekin jan, eskolara pijamarekin joan, arraro usaintzen duzu... Txoratuta al zaude edo zer?».

Ali haserretuta etxera joan zen. Mikel eta bere taldea futboleant jokatzen hasi ziren barrerka. Baina, orduan, Mikel txirristatu egin zen eta hanka apurtu zuen.

Mikel negarrez ospitalera joan zen eta 3. kontsultan ingresatu zuten. Orduantxe entzun zen megafonotik: «Hajibi doktorea 3. kontsultara mesedez...».

JAGOBA ARANBARRI RÍA
Argia ikastola. DBH 1
BHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Lehen Hezkuntza



AMAIA IZKO TORMO
IKER RUIZ MORENO
PÍA LATRÓNICO BALBUENA
MARINA GURPEGUI LAPUERTA

Arratoi bat izoztua

Gaur arratoiak hotza du. Arratoia etxean sartzen da baina arratoiak hotz handia du.

Arratsaldean neska batek poltsikoan sartzen du. Neskak gaztaina beroak erosten ditu, eta poltsikoan sartzen ditu. Arratoiak ez du hotza baina oso bero dago eta urtu egiten da.

AMAIA IZCO TORMO

San Pedro Eskola Publikoa (Mutiloa). 6. maila

LHko LEHEN SARIA

Nire astelehena

Egun batean kanpaiak zortziak jo zituzten. Altxatu, garbitu, gosaldu, jantzi eta eskolara joan nintzen.

Orduak eta orduak itxaroten. Igandea zen.

IKER RUIZ MORENO

CPIP Santa Vicenta María (Cascante). 6. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Neska eta ipuina

Gaur, eskolan, neska batek, erlojua eta kandela imajinatzen ditu. Baina, txirrinak jotzen du eta klasera sartzen da.

Matematika klasea du, neskak kandela eta taza imajinatzen ditu. Baina irakasleak neska klasetik ateratzen du.

Neska etxean dago, taza eta piztia imajinatzen ditu. Baina, amak deitzen dio jatera joateko.

Neskak, piztia eta neska imajinatzen ditu eta bere lagunari galdetzen dio:

—Zer ipuin da?

PÍA LATRÓNICO BALBUENA
San Pedro Eskola Publikoa (Mutiloa). 5. maila
LHko OHOREZKO AIPAMENA

Liburu magikoa

Aitor oso kezkatuta zegoen azterketa zail bat zuelako. Bere etxerako bidean liburu bat aurkitu zuen, liburua ireki zuenean magikoa zela konturatu zen eta ukitzen zuen bakoitzean bere bizitza agertzen zen idatzirik. Irakurtzen hasi zenean, bere bizitzan zenbat erronka pasa behar izan zituen eta hauen arrakastaz ohartu zen. Azterketaren eguna iritsi zenean, oso urduri egin zuen azterketa. Honen emaitza jaso zuenean, oso ondo egin zuela konturatu zen. Egun hartatik aurrera, zerbait oso zaila izan arren ere, egiten saiatzen da.

MARINA GURPEGUI LAPUERTA
CP Virgen de la Cerca (Andosilla). 6. maila
LHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Bigarren Hezkuntza



IRENE **A**ALEXANDRA **M**MALES **P**PINTO
MMARTA **E**EZPELETA **B**BARRICARTE
FFRANCISCO **G**GUTIÉRREZ **C**CALDERÓN
NNEREA **M**MOLINERO **S**SOSA

Aitatxi ez dago

Aitatxiren etxera joan naiz, amona triste dago, familia triste dago.

Aitatxi ez dago beti bezala bere sofan telebis-ta ikusten. Nire amak erraten du aitatxi lanera joan dela. Nik gezurra dela dakit, bere botak eta erremintak hemen daude.

Haiek uste dute ez dakidala, baino aitatxi jada ez dago hemen.

IRENE ALEXANDRA MALES PINTO
Lekaroz BHI (Lekaroz). DBH 3
BHko LEHEN SARIA

Ama?

UDABERRI

Egunon ama, nor ote naiz? Hemen goitik mundua oso ondo ikusten da. Nire anai-arrebak ikusten ditut jaiotzen. Ama, zergatik ez dago hostorik lurrean?

UDA

Hau beroa, ez du euririk egiten aspaldi; egarri naiz, ama.

Asko pisatzen dut orain, seguru nirekin ahal duzula? Ama, ez nazazu aska mesedez. Beldurra ematen dit erortzeak.

UDAZKEN

Ama, zergatik erortzen ari dira nire anai-arrebak?

Ama, ni askatzen ari zara. Ama, ez egin mesedez!

...

Ama, non nago? Beldur naiz, lurean nago?
Zapaltzen naute, mina dut.

Begira ama, honek gauza zorrotza du, zer
da? Zer egiten ari da? Zer dira kolpe horiek?
Ama? Ama???

MARTA EZPELETA BARRICARTE
IES Plaza de la Cruz (Iruñea). DBH 4
BHko OHOREZKO AIPAMENA

Aitzakiarik zaharrena

Ni aulkian nago mahaiaren ondoan, arkatza mahai gainean, liburua etxean eta etxeke lanak txakurraren tripan.

FRANCISCO GUTIÉRREZ CALDERÓN
Lekaroz BHI (Lekaroz). DBH 3
BHko OHOREZKO AIPAMENA

Ilargira **malgukian**

Bazen behin gizon behartsu bat, Henry zuen izena eta Villaluzen, Vilarreko auzo txiki batean, bizi zen.

Henry, egunero, iluntzean, bere hiriko kaira zihoan ilargia ikusteko. Ilargia orduetan begiratzen geratzen zen, eta pentsatzen zuen: «Nola irits naiteke harenganaino?».

Egunak, asteak, hilabeteak pasatu ziren, eta harengana iristeko modua aurkitu gabe jarraitzen zuen.

Urteak pasa ondoren, malguki bat eraikitzea bururatu zitzaion, bultzatzeko eta harengana iristeko. Dirurik ez zuenez, material berrera-bilgarriak erabili zituen.

Hura eraiki ondoren, bultzatzea erabaki zuen harenganantz, baina ez zuen lortu indar nahikoa, eta espazioan geratu zen.

NEREA MOLINERO SOSA
Elortzibar DBHI (Noain)
BHko OHOREZKO AIPAMENA

Iparraldea **L**ehen **M**aila



JOHANE **O**IHENART-**E**TXART
GORKA **B**OUIX
UXUE **M**ONTERO
GEXAN **A**ROTÇARENA

Mattin biper jalea

Mattinek maite ditu Ezpeletako biperrak. Gauetan gordezka biperrak jaten zituen. Gau batez bere amak atxeman zuen armairuan biperrren jaten eta bere amak laurogeita hamar zarta ipurdian eman zazkon eta bere amak erran zakon Mattin ikasiko duk gauetan ez dela biperrik jaten zozua joan adi ganberarat eta fite bestenaz bihar eguerditan biperrik ez. Mattinek erran zakon ados ados. Gauerditan Mattin joan zen ikustera ama lo zenez eta ama iratzarria baitzen bizi guziko biperrik ez erran zakon bainan Mattinek gordezka ama lo zelarik jaten zituen Ezpeletako biperrak.

JOHANE OIHENART-ETXART
Arberoa ikastola (Donamartiri). 4. urtea
LMko LEHEN SARIA

Xakurra eta gizonaren txixtea

Igande batez, xakurrak eta gizonak ostatuan bazkaltzen zuten eta xakurrak erran zion:

—Badakizu... —eta gizonak moztu zuen.

—Ez da mintzatzen bazkari denboran!

Xakurrak berriz:

—Ez nekien ez zela mintzatzen jatean...

Bere janaria bukatu zuenean gizonak ohar-tarazi zion:

—Orain hitz egin dezakezu —erran zion.

—Berantegi, xixari bat bazinuen zure entsaladan!

GORKA BOUIX

Uhabia ikastola (Bidarte). 3. urtea

LMko OHOREZKO AIPAMENA

Kontzertu sorpresa

Bazen behin mutiko bat Sergio deitzen zena eta bateria jotzen zuena. Baina arazo bat zuen: ez zuela bere kontzertuarentzat gitarristarik aurkitzen. Orduan bere aspaldiko laguna Samuel deitzea etorri zitzaion bururat.

—Samuel, nahiko zenuke gau huntan nirekin kontzertu bat egin?

—Barkatu, ezin dut, lana badut!

Beraz Sergiok Oier deitzea erabaki zuen.

—Oier, elgarrekin kontzertu batean joko dugu?

—Ze ordutan da?

—20:00etan.

—Ados.

19:50etan Oier oraindik ez zen kontzerturat iritsi. Beraz Sergio deitzea erabaki zuen.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du.)

UXUE MONTERO

Urruñako ikastola (Urruña). 4. urtea

LMko OHOREZKO AIPAMENA

—Barkatu Sergio, autoa panan daukat,
ezingo naiz etorri!!!

—Zer!? Beno ados, saiatuko naiz bakarrik
jotzen.

Gau hartan, Sergiok kontzerturik bikainena
egin zuen!

Haurra lurretik sortua

Egun batez bazen famili bat ez zuena haurrik bainan nahi zuena ukan haur bat.

Egun batez gauean aitetamak ez ziren lo, entzun zuten arrabots bitxi bat aitak erran zion «entzun duzu?» eta erantzun zuen «ez, ez dut entzun» beraz aita atera zen kanpora eta ikusi zuen haur bat baratzetik ateratua, bainan ez zen besteak bezala zenta bazituen sei hosto zangoetan. Egun batez erran zuen bere aitetameri «hostoak galtzen baditut hilko naiz» bere aitetamak nigarrez hasi ziren. Egun batez egun hori jin zen, animaleko tornado bat jin zen eta haurra joan zen.

GEXAN AROTÇARENA
Arberoa ikastola (Donamartiri). 5. urtea
LMko OHOREZKO AIPAMENA

Iparraldea **Bigarren Maila**



ELAI**A** **H**OU**G**UENAGUE
MAI**A**LEN **I**RIG**O**YEN
KEN**Z**O **D**U**F**OURD
ANTONIN **H**AL**Z**UET

Oihanaren ixtorioa

Egun batez, Euskal Herrian, printzesa bat bazen. Bere izena Oihana zen.

Ez zuen maite bere bizia. Maite zuen «metal» musika, markako jantziak ematea eta karrateko kurtsoen hartzea, baina bere aitamek nahi zituzten arropa arrosak Oihanarendako.

Arrats batez, Oihana joan zen Baionarat: printze bat lanjerrean zen! Oihana arribatu zen eta armiarma bat ikusi zuen! Animaleak nahi zuen hil printzea!

Oihanak hil zuen animalea!

—Milesker ainitz! erran zuen Ximun printzeak, nahi duzu nere emaztea bilakatu?

—Ez, ez dut nahi, erantzun zuen Oihanak.

—Bainan... nigarrez hasi zen Ximun.

—Entzun duzu, Ximun? Ez dut nahi!

Oihana, berriz joan zen bere gaztelurat.

ELAIA HOUGUENAGUE
Errobi Kolegioa (Kanbo). 5. urtea
BMko LEHEN SARIA

Ardiaren kolorea

Ardi batek nahi zuen kolorez aldatu, aski zuen xuria izatea!

Beraz ardia joan zen iguzkiaren horiaren harapatzera.

—Oh ez! Ez naiz xito bat!

Ardiak belarraren berdea hartu zuen.

—Ez naiz igel bat!

Itsasoaren urdina harrapatu zuen.

—Ha! Ez dut nahi izurde bat izan!

Azkenik ikatzaren beltza hartu zuen.

—Ez naiz otso bat, izigarri itsusia da kolore hori!

Azkenean ardia berriz xuria bilakatu zen eta kontent zen bere kolorearekin.

MAIALEN IRIGOYEN

Errobi Kolegioa (Kanbo). 5. urtea

BMko OHOREZKO AIPAMENA

Pobreen «*La casa de papel*»

Zer egiten ari naiz? Zergatik? Zertarako banku batean naiz pistola batekin? Nere laguna lagundu nahi nuen bakarrik, eta hemen naiz orain. Gero, nik ere ez dut dirurik: krisia da! Bainan, jende pobre hauek, ez dute deus galdegin! Bakarrik bizpahiru minutu dira, gero, joanen gira. Nehork ez du kolperik ukanen.

Joan baino lehen, jendea izuturik utzi behar dut alde egiteko denbora ukan dezagun. Bakeszale bat naiz, alta... Ai, ai, ai!!! Bala eskaipatu zait.

KENZO DUFORD

Errobi Kolegioa (Kanbo). 3. urtea

BMko OHOREZKO AIPAMENA

Gerlan

Gerla da. Tiii!! Taaaa!! Obusa erauntsi bat erori da. Lubakian gelditzen dira bakarrik bi soldado, Pettan eta Ximun.

—Pettan, denak hil dira eta gainera ez dugu gehiago tirogairik. Zato!!

—Zergatik? Nik ere ez dut gehiago!

—Zato erran dizut!! Sartu zilo hortan, tirogai ainitz badira!!

Ohartu gabe ere Pettan kanoiaren barnean sartu zen:

—TIRAA!!

BUMMMMMM!

—AAHHHHHHHHHHHHHHHHH!!

Mort pour la patrie!

ANTONIN HALZUET

Amikuzeko Kolegioa (Donapaleu).3. urtea

BMko OHOREZKO AIPAMENA

ESKER HITZAK

Bere lana egin du,
esku zartak sari.
Aurten gu laguntzera
etorri denari,
gaztetxoei harrera
egin dienari;
eskerrik beroenak
Sustrai Colinari.

Eta eskerrik beroenak ere Argia ikastolari, urtez urte lehiaketa honetan ari baitira bertakoak, gogo o(i)nez eta prestu. Honez gero urte parrasta dute atzean, hizkuntzaren argiak piztuz.

Mila esker aunitz Mutiloako eskolako lagunei eta Arberoa ikastolakoei, ekitaldiak egiteko harrera ezin hobea egin digutelako, beste lan bat gehiago izanagatik ere.

Nafarroako Gobernuari, Hezkuntza Sailaren bidez gure ekimen hau sustatzeagatik eta ikastetxe guztietara zabaltzeagatik, eta harekin batera gurekin izan diren Nafarroako Ikastolen Elkarteko eta Seaskako ordezkariari.

Epaimahaikideei, nola ez, urtetik urtera lan handiagoko lekuan izan arren aldaparik ez dutelako ikusten.

Eta bereziki ikasle eta irakasleei, parte hartzeagatik, edo, hobeki esan, emateagatik, batzuek beren ahaleginak eta besteek beren ardurapean hartzeagatik mikro-ipuin lehiaketa honen gauzatzea.

Aurkibidea



Epaimahaiaren akta.....	5
-------------------------	---

Luze etzanda

SUSTRAI COLINA.....	13
---------------------	----

D EREDUA, LEHEN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

Tximeletaren maitemintzea

ENEKO ETXEBERRIA OSUA	17
-----------------------------	----

Supersagua

MIKEL MAIZA LESAKA	18
--------------------------	----

Aulki baten bizitza

IMANOL VAYÁ CAMPOS	19
--------------------------	----

Arantzako istorioa (egiazko istorioa)

AIMAR ARANDIA ELIZONDO.....	20
-----------------------------	----

D EREDUA, BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

Pintza gorriak

IRANTZU ZOZAIA MORRÁS	23
-----------------------------	----

Itxurak

AYAX REDÍN VEGA	24
-----------------------	----

Txuletak

UNAX SÁNCHEZ ULIBARRENA	25
-------------------------------	----

3. kontsulta

JAGOBA ARANBARRI RÍA	26
----------------------------	----

A EREDUA, LEHEN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

Arratoi bat izoztua

AMAIA IZCO TORMO.....29

Nire astelehena

IKER RUIZ MORENO30

Neska eta ipuina

PÍA LATRÓNICO BALBUENA.....31

Liburu magikoa

MARINA GURPEGUI LAPUERTA.....32

A EREDUA, BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

Aitatxi ez dago

IRENE ALEXANDRA MALES PINTO35

Ama?

MARTA EZPELETA BARRICARTE.....36

Aitzakiarik zaharrena

FRANCISCO GUTIÉRREZ CALDERÓN.....38

Ilargira malgukian

NEREA MOLINERO SOSA39

IPARRALDEKO IKASLEEN LEHEN MAILAKO KATEGORIAN

Mattin biper jalea

JOHANE OIHENART-ETXART 43

Xakurra eta gizonaren txixtea

GORKA BOUX 44

Kontzertu sorpresa

UXUE MONTERO..... 45

Haurra lurretik sortua

GEXAN AROTÇARENA..... 47

IPARRALDEKO IKASLEEN BIGARREN MAILAKO KATEGORIAN

Oihanaren ixtoria

ELAIA HOUGUENAGUE 51

Ardiaren kolorea

MAIALEN IRIGOYEN 52

Pobreen «La casa de papel»

KENZO DUFOURD 53

Gerlan

ANTONIN HALZUET..... 54

Mikro-ipuinak 2018

liburuaren inprimaketa 2019ko
maiatzean burutu zen
Rodona Industria Gráfica moldiztegian,
fotokonposiziorako
A Garamond, Myriad eta Lance
letra motak erabiliz.
Lehenbiziko edizio hau
bi mila eta bostehun alekoa
izan da.



